

AZAROAK 25



**Emakumeen aurkako
Indarkeria**

desagerrarazteko

Nazioarteko Eguna

urtero azaroaren 25ean

ospatzen den

nazioarteko eguna da.

Egun honen

ospakizuna,

Latinoamerikan ospatu

zen lehenengo aldiz

Mirabal ahizpen

omenean. Mirabal ahizpak, Rafael Leónidas Trujilloren diktaduraren aurka zeuden hiru ahizpa dominikarrak ziren. 1960ko azaroaren 25ean hil egin zituzten Trujilloren agindupean. Ahizpen omenez ospatzen da egun hau.



Lauaizetako 4.mailako hainbat neskek 2.mailakoei gai honi buruzko tailer bat egitea erabaki zuten, eta 4. mailako bi ikasle, Olatz Arregi eta Leire Etxeberri, elkarrizketatu ditugu, tailerra nola egiten duten pixka bat jakiteko.

Zer azaldu zenieten zehazki 2.mailakoei?

Matxismoa eta genero indarkeria zer zen azaldu ginien eta ondoren horri buruzko ariketa batzuk egin genituen gaur egungo egoeraz pixka bat kontzientziatzeko.

Zer da matxismoa?

Emakumeek emakume izateagatik jasaten duten diskriminazioa.

Eta mikromatxismoa?

Gure egunerokoan emakume izateagatik jasaten dugun diskriminazioa da.

Zer da genero indarkeria?

Pertsona batek, beste pertsona bati, bere sexuagatik egiten dion min fisikoa edo psikologikoa da.

Zergatik erabaki zenuten 2.mailakoei horri buruz hitz egitea?

Adin egokia delako gai honi buruz gehiago jakiteko.

Gustura egon zineten azalpena ematen?

Bai.

Eta 2.mailakoak interesatuak ikusi al zenituzten?

Bai, asko parte hartzen zuten.

2. mailakoei, tailer honi buruko iritzia emateko eskatu genien. Hauek izan ziren Unai Bengoetxea, Julen Gomez eta Paula Busto ikasleen iritziak:

Zer iruditu zaizue 4.mailako neskek egindako tailerra?

U.B.: Oso interesgarria eta gauza berriak ikasi genituen.

J.G.: Lana oso txukuna zegoen eta oso ondo azaldu dute dena.

P.B: Lan ona egin dutela.

Zer ikasi zenuten?

U.B.: Gauza asko ikasi genituen, gauza desberdin asko.

J.G.: Mikromatxismoa zer zen, eta kasu batzuk ere ikusi genitun.

P.B.: Oso ondo azaldu ziguten zer zen matxismoa.

Zer pentsatzen duzue matxismoari buruz?

U.B.: Gaizki iruditzen zait, mende honetan oraindik jende matxista egotea. Neska eta mutilek eskubide berdinak dituzte.

J.G.: Ez zait normala iruditzen. Denek eskubide berberak ditugu.

P.B.: Orokorrean, genero indarkeria oso gaizki dagoela eta ez dela gauza normal bat.

Hitzaldia baino lehen zeneuzkaten ideiak berdinak dituzue edo zuen ikuspuntua aldatu dute?

U.B.: Ez, ideia berdinak ditut.

J.G.: Ez, berdina.

P.B.: Bai orokorrean berdinak, baina gauza berriak ikasi ditugu.

Zer ariketa edo jolas egin zenituzten?

U.B.: Bideo batzuk ikusi genituen.

J.G.: Galdera batzuk egin zizkiguten eta baietz pentsatzen zutenek gelako alde batera joan behar ziren eta ez pentsatzen zutenek beste aldera.

Gure ondorioa 4. mailako neskak tailer hau egiten gustura egon direla eta 2. mailakoak gauza berriak ikasi dituztela da. Era berean, gu ere lan hau egiten gustura egon gara eta pentsatzen dugu gaur egungo gazteek eta batez ere mutilek oso argi daukatela, genero indarkeria oso gaizki dagoela eta pertsona guztiok eskubide berdinak ditugula.

Ainitze Bengoetxea eta Saioa Arrizabalaga